

HEZKUNTZA BULETINA



JANGELA EREDU BERRIA

Hernaniko ikastetxeetarako jangela eredu berria

2023-2024

ikasturtetik gaur arte, Hernaniko ikastetxeetarako jangela eredu berri baterako proiektua garatu da eta orain proiektua Eusko Jaurlaritzara bidean da!

2023ko udazkenean Seru-nionek eragindako gerta-kari haiek, egonezina, ha-serrea eta mesfidantza ekarri zuten herrira. Era berean, gaur egungo ere-duak porrot egin zuela agerian utzi eta egungo jangela eredu aldatzeko nahia indartu zen. Hori dela eta, bestelako jange-la eredu baterako zein au-ker a zegoen aztertzeari ekin zitzaion.

Pixkanaka, herri osoko ikuspegia hartu zuen di-namika piztu zen. Hilero-hilero, ikastetxe guztietara-

ko; Urumea, Elizatxo, Txi-rrita, Aratz, Langile eta Institutuko ikas ko-munitateko ordezkariak (guraso, irakasle, jangela arduradun...), udal orde-zkariak eta Hernani Buru-



Hasierako gertakarien egonezinak, gerora, herriko ikuspegia hartu zuen proiektua osatu eta garatzeko.

JANGELA EREDU BERRIA



tetxe guztietan zabaldu eta partekatu da, lanketa zabala egin da bakoitzean eta ikastetxe guztietako kontseiluen babesak jaso du, kasuan askotan parte hartze eta onarpen zabalarekin. Oinarri sendoa lortu arren, Eusko Jaurlaritzara joan aurretik, babes gehiagoren bila Udalean dauden alderdi politikoengana jo zen. Banakako bileretan, prozesua eta jangela eredu berriaren proposamena azaldu zaie, baita, maiatzaren 27ko osoko bilkurarako babes eskaera egin ere... Eta, horrelaxe izan da, aho batez onartua izan bait zen, Udaleko plenoan, jangela eredua aldatzeko proposamenaren mozioa.

Hurrengo pausua Eusko

Hernanirako jangela eredu berriaren proposamena sortzen aritu diren partaideen azalpenak entzuten herritar talde bat.

Jaurlaritzara eskaera luzatzea izango da. Bide erraza izango ez dela jakinda ere, saiakera egiteko prestutasuna dago. Babes zabala lortu duen proiektua Hezkuntza Sailburuari aurkeztuko zaio, ondoren eskaera Legebiltzarrera eraman ahal izateko.



Hezkuntza Plataforman, gertutik bizi izan dugu prozesua eta gauza bakarra dugu esateko: ZORIONAK egindako ibilbideagatik eta ezartzea lortu den oinarri sendoagatik! Herriko ikas-komunitate osoa batzeak indartzen gaituela argi geratu da oraingoan ere, jarrai dezagun ba, batzen gaituenari lotzen!

Euskara, jalgi hadi plazara!

Kantak esan bezala, euskara plazara atera genuen pasa den euskararen egunaren bueltan.

Hernaniko ikastetxeetako LH2ko ikasleak kalera atera ziren, elkarrekin euskararen eguna ospatzeko. Goizean hasi eta bazkal ondorenera arteko egitarau polita prestatu eta gozatu zuten. DBH4ko ikasle boluntarioak izan ziren jokoen dinamizatzailerik.

zean, bazkaria, berriz, kiroldegian egin zute, ondoren dantzan ibili ziren, Zapotxinen emanaldiaren zai. Primeran pasa zuten.

Euskaraldia

Maiatzaren 9an berriz elkartu ziren Hernaniko LH3eta LH4ko haurrak, oraingo honetan *Badator Euskaraldia* lelopean.

Herriko ikasleak Xaxatzailerik bihurtu ziren; ingurukoak euskara erabiltzera xirikatzaren dituzten herritar gazteak. Kaleak hartu eta ederki pasa zu-

ten, berriz ere, DBH4ko ikasleak lagun zituztela. Jolasak, kartelak, dantzak, magia,... denetatik izan zen. elkarrekin egun polit bat igarotzeko, festa eta aldarrikapena uztartuz.

ESKERRIK ASKO parte hartzaile, irakasle, eta boluntario bakoitzari, denentzako bi egun eder ospatu ahal izan ziren, ahalegiak merezi duela erakutsiz. Euskara plazara eramaten jarraitu beharra dugu, beraz, izango da aukera berri gehiago!



Bazkaldu ondoren, Zapotxinen emanaldiarekin gozatu zuten herriko umeek.

PALESTINAREKIN ELKARTASU

Hezkuntza Plataforma Palestinarekin bat

Badira jada 20 hilabete luze Israel, Estatu Batuen laguntzarekin eta Europaren isiltasunarekin, Palestina suntsitzen ari dela, etengabeko genozidioan. Milaka eta milaka eraildako pertsonen artean, haurrak eta nerabeak dira asko, %65a baino gehiago direla diote. Suntsitutako herri osoak,

tartean ospitalak eta eskolak asko, sarraskiaren aurrean ezin gara geldirik egon. Ezin gara isilik geratu, erailtzen ari diren haur eta gazte horiek gureak izango balira bezala sentitzen ditugulako.

Horregatik ekimen desberdinak eraman ditugu

aurrera herrian, gure protesta xumea baina ozena adierazteko:

Iazko ikasturte bukarran Atsegindeginean, Palestinako hainbat umek egindako marrazkiak zintzilikatuz eta gure herriko haurrak gonbidatu genituen maitasun eta animo mezuak ematera marrazkitxo batzuk eginez. Hango eta hemengo musika eta dantzek egin zuten zurbia.



Ekitaldi ugari izan dira Palestinar herriari guru maitasuna adierazteko.

Hernanitik, gure besarkadarik beroena bidali nahi diogu Palestinar herriari (...) bertako haurrak eta nerabeak gureak ere badirelako!



Hortan geldituz ezin zela pentsatuz, Atsegindegin zintzilikatu genituen marrazki berberak, eskolaz eskola ibili dira erakusketak mugikor modura. Erakusketa hau eskola bakoitzean Palestinako egoeraz hitz egiteko aitzakia polita eman die irakasle zein ikasleei.

Erakusketarekin bat eginez, eskola batzuek izan dute aukera "Sol Band" palestinarraren musika-

rieekin solasaldia egiteko. Musikaz lagunduta Palestinako egoeraren berri izan eta momentu hunkigarriak biziz.

Martxoaren 24an, Zinkoenean eta Ereñotzun kontzentrazio txiki bat burutu genuen, Gure haurrak ere badira taldeak proposatutako ekimenari erantzunez. Eguraldiak ere Israelekin bat egiten zuela ematen bazuen ere, Palestinarrei gure babesa

eman genien, Israelen genozidioa salatuz.

Hernanitik, gure berrakadarrak beroena bidali nahi diogu Palestinar herrirari eta gure maitasuna eta babesa helarazten jarraituko dugu Israelen genozidioak jarraitzen duen bitartean. Gaza, Cisjordania, Jabalia... Palestina osoa infernu bilakatu duten honetan, bertako haurrak eta nerabeak gureak ere badirelako!



Gazatik Hernanira

Rafah Shamali, Said Fadel, Abdelkader Aboqassim eta Mohammed Nasrallah, Sol Band taldeko kideak, Gazatik etorri dira eta asilo eskaera eginda, Hernanin biziko dira hemendik aurrera. Gernika Palestina ekimenak ongi etorria emateko harrera ekitaldian parte-hartu du Hezkuntza Plataformak.



Sol Band taldekideak, beraien ongi etorri emanaldian.

Euskara eta kulturartekotasuna

Txirrita eskolan

Nola egin behar ditugu guraso-bilerak eskoletan, ja-kinda guraso batzuk euskara ulertzeko zailtasunak dituztela? Zer da egokien, bi hizkuntzatan egitea? Ze bi hizkuntzatan? Xuxurlariak, aldibereko itzulpena?

Erabakia zaila da, baina gauzak eraldatu daitezkeela erakutsi ziguten Txirrita Eskolakoek eta UEMA-kin batera aurrera eraman duten proiektuarekin.

Euskara eta kulturartekotasuna

Orain 2 urte kezka sortu zen Katiluzar Guraso elkartearen, bileretara euskararekin zailtasunak zituzten gurasoak hurbiltzen ez zirelako. Horrek, UEMAra hurbiltzera eraman zituen.

Lehendabizi, markoaren kokapena egin zutela azaldu ziguten: euskarak Eskal Herrian duen tokia, bizi duen egoera... azaldu zuten, baina baita, euskal hiztunak ez zirenek bizitzen dutenaz ere. Minak konpartitu eta bihotzak biguntzeko aukera ematen du honek.

Kokapen ariketa hau da proiektuaren abiapuntua eta berebiziko garrantzia duela esan ziguten; egoera azaldu, elkar hobeto ulertu, eta ikatetxeetan dau den jatorri desberdinetako kulturen arteko zubiak sakontzea ere ekarri baitu, eta hori guztia, euskara erdigunean jarritz.

Telegram

Markoa ezarri ondoren, hartu dute Telegramekin lan egiteko erabakia Txirrita eskolan. Itzultzaile batek aldibereko itzulpena egiten du eta behar duen gurasoak kaskoak jartzen ditu eta nahi duen hizkuntzan jasotzen du informazioa.

“Xuxurlariarekin gelako izkin batean jarri behar genuen eta molestatzen ari ginen sensazioa genuen, orain berriz, Telegram bidez, nahi dugun lekuan esertzen gara eta eroso sentitzen gara. Euskararekiko lotura handiago sentitzen dugu”. eta hau hasieran egindako prozesuak ekarri du. Izan ere, tresna ugari badaude ere, prozesu honetan garrantzia duena elkar ulertzea da, inork beretik galdu gabe. Kulturartekotasunean biziko bagara euskara zaindu beharra daukagu, baina komunitate bakoitzeko kide guztiak. gurera hurbilduz, atxikimendua handituz.



Hezkuntza Eskolan emandako informazioa jasotzen ari da aldibereko itzulpengintzaren bitartez.